

Orain alkateorde naiz. Edo alkate-bigarren. Baina hori baino lehen, eta hori baino gehiago, kultur zinegotzi. Nork esan behar zidan niri. Munduak buelta asko ematen dituela, horixe da hemen egia biribil bakarra. Karamelua jarri zidan ahoan, eta nola esan ezetz, bada? Banitatearen lanak.

Literatura saria irabazi ondoren, alkatearengana jo nuen, lan-utzialdia luzatu nahi nuela adieraztera. Bai-mena eman zidan Karmenek, emazteak. Diru puska eder horrekin ez zegoela arazorik beste urte pare baterako lana uzteko. Gogotik idatzi behar nuen oraingoan! Udal hauteskundeak gainean geneuzkan, dinosauro zauritu baten gisara. Esan nion alkateari esan beharrekoa, eta hark, ziplo, hauxe bota zidan:

–Nahi duk izan kultur zinegotzi, Karlos?

–Alderdian?

–Ez, oposizioan, no te jode!

–Ni ez naiz Alderdikoa, Servando. Ez ditut zuen estatutuak irakurri.

–Eta alkateorde, jakina. Ni ez nagoenean, hi alkate.

–Baina nik ez dut Jainkoa sinesten. Ni progresista naiz. Laikoa eta akonfesionala. Sozialista ere bai apurño bat, giza zerei dagokienean behintzat. Baina abertzalea ere bai, jakina. Aita eta aitona bezalaxe.

–Ongi. Joan independente. Horrek plus bat eman-go zioz zerrendari. Irekiak gaudek ideia berrietara. Uler-tzen? Eta gero soldata eder askoa daukak, hartuko likek batek baino gehiagok. Eta nor hi bezain jantzia herri xixtrin honetan, Karlos? Inor ez zaik orpora ere iristen.

–Baina nik idatzi egin nahi nuen, alkate. Ezin dut idatzi gabe bizi.

–Eta ez haiz biziko! Bi arratsalde libre, idazteko. Hori ere agintzen diat. Lau urte nirekin, gero bi urteko lan-utzialdia: denera sei. Oraingoan betiko ahaztuko duk liburutegiko txulo itogarri hori! To, firma ezak he-men...

–Utzidazu pentsatzen, Servando. Karmeni esan be-har diot...

–Konforme zagok. Higan osoro sinesten dik. Hori emakumea, hori. Hankak lurrean zauzkak, Karlos. Eta nola ikusten duen dena. Herriaren alde egin behar du-gula gogor, ilusioz, oztopo guztien gainetik. Esan zidak bihar moztuko diala ilea, argazkietarako.

–Karmen ere konforme dago, beraz. Ongi. Neu ba-karrik falta naiz hortaz.

Bertigoa sentitu nuen une horretantxe, zorabio ez-literario bat. Ezezko aurpegia jarriz, baiezkoa eman

nion. Gogortxo estutu ninduen, Servando gizaseme handia baita. Eta hauteskundeak irabazi genituen, nola ez. Abertzale ilegalak ezin izan ziren aurkeztu, eta hala ere aurkeztu eta hiru zinegotzi lortu zituzten, ilegalak zirenak. Servando alkateak, hala ere, eserleku bat utzi zion ezker abertzaleko zinegotzi ilegalari, bakearengatik. Beraz, eta labur esanda, horrela osatu zen T.-ko udalbatza: 7 zinegotzi Alderdiarentzat; 3 Abertzale Akonfesionaltzat; 2 Sozialistentzat; 1 Ezker Federalistarentzat; 1 Alderdi Populistarentzat; 1 Karlistentzat; 1 Ezker Abertzale Demokratikoarentzat; 1 Ezker Abertzale Ilegalarentzat. Denera, bada, 17 zinegotzi.

Gero bilerak egin genituen eta bazkariak eta sagardotegiren bat ere bai. Karterak eta zinegotzigoak eta halakoak banatu ziren, era duin eta ez frentista batean, eta esan beharra dago udal-konposaketa nahiko orekatua eta koloreduna osatzea lortu genuela, inon ez bezalakoa. Jakina, denak ez ziren asebate eta pozez lehertu, baina politikak hori du berezko gaitzetako bat. Hartzen eta ematen jakin behar da, eta batzu-batzuek ez dakite erregela oinarrizko hori errespetatzen. Horiekin saihestezina da liskarra, gatazka, kalapita, azantza gaiztoa.

Hilabete igaro zenean, lehen udalbatza egin genuen. Batzar Aretoak distira berezia zegien, eta ez zen garbikariengatik. Erlantz goxo bat suma zitekeen hamazazpi zinegotzian begietan, irriño urduri urdin urrun bat. Herria zerbitzatzeko poza! Alkateak agur esan zuen, eta hantxe zeuden, baita ere, idazkari-anderea eta kontuhar-

tzailea. Eta udaltzaina, zut. Zenbat? Hogei. Eta alkateak agur esan zuen berriro, agur. Eta izen guztiak hartu zituen ahotan, ez alferrik, eta ozen adierazi, jiran-bueltan geunden ordena berean, mahaiak ferra moduko bat irudikatzen baitzuen: Ezker Abertzale ilegaleko Xanti, agur; Alderdi Sozialistako Pablo eta Indalecio, agur; Abertzale Akonfesionaleko Anakleto, Tomax eta Justina, agur; Alderdiko Sabin, Gurutz, Karla (neu neroni), Mirari, Sorkun, Jon Iñaki, agur; Alderdi Karlistako Victoria, agur; Alderdi Populistako José Antonio, agur; Ezker Federalistako Niceto, agur; Ezker Abertzale Demokratikoko Patziko, agur.

Halaxe agurtu gintuen guztiak, eta ni dagoeneko ez nintzen Karlos, Karla baino. Aitona bezalaxe. Ez zitzaidan gaizki iruditu, poz txinta bat ere sentitu nuen egia esan behar bada, baina alkateak baimenik eskatu gabe aldatu zidan izena, eta hori ez zitzaidan gehitxo gustatu. Baina ez al zuen ba berak agintzen? Eta jarraitu egin zuen harrera-hitzekin, zutik ipinita:

—Hamazazpi gizon-emakume gaude hemen, herriak libreki aukeratuak, eta gu herria serbitzeko izan gara aukeratuak. Hori ez dezala inork ahantzi. Ez dut nahi korruptelarik, ez dut nahi pelotazorik, ez dut zingobarrromaziorik ametituko. Anai-arrebak zarete niretzat, senitarteko pottoloak, eta halaxe maiteko zaituztet nik, denak. Denak! Badakit ez duzuela nik bezala pentsatzen, baina pentsa ezazue alderantziz dela kontua, alegia nik ez dudala zuek bezala pentsatzen, eta hala hobeto

joango zaizkigu gauzak. Niri ez zait tirania gustatzen, gizon xamurra naiz ni gero, baina beharrezkoa bada milikeriarik gabe aterako dut zartailua...

–Esto es, sin remilgos –bota zuen José Antonio popularrak–. Lo digo porque el traductor simultáneo presenta interferencias y no sé si lo he entendido bien...

José Antonio popularra zen traste hura erabiltzen zuen bakarra. Gainerako guztiak euskaldunak ginen. Baita bi sozialistak ere, zeinak adar baskistakoak baitziren, Jainkoari eskerrak. José Antoniok berrogeita hamar urte zeramatzan herrian bizitzen, eta hogeita bost zinegotzi gisa, eta hamazazpi euskaltegian, baina ezin zuen euskararekin. Saiatu saiatzen zen, hori egia da, baina esaten zuen euskara hizkuntza barbaroa zela, ez barbaroa hiztunengatik, barbaroa ikasteko izugarri zaila zelako baizik. Gainera, urtetik urtera mailan behera egiten zuen, atzeraka. Eta iritsi zen une bat non hainbeste urtetan zehar ikasitakoa zeharo ahaztu baitzuen, zero gradura iristeraino. Eta hala ere José Antoniok ez zuen euskararekin etsitzen...

–Horixe, sin remilgos, zuk badakizu ongi zer esan nahi dudan, José Antonio. Eta nahi dut errespetua, lana, inplikazioa, borondatea, gogoia, ideia berriak... Ideia berrietarako hemen izango nauzue beti. Café world, energia berriztagarriak, jasankortasuna... Hori batez ere, sostenibilitatea landu behar dugu, izan dadila dena sostenibile: airea, trafikoa, kultura, hirigintza, agure-etxea, bide-gorriak, eskolak eta sinesmenak, den-dena... Ulertzen?

–Bestela pikutara goaz, hori argi dago –Nicetok.

–Esazu ba ideia sostenibile bat, Niceto, denak hankaz gora joan ez gaitezen –alkateak.

–Neoliberalismoa lurperatzea! –erantzun zuen komunistak.

–Abstrakziotik konkreziara, Niceto! –alkateak, haserre.

–Ez dakit ba... Aberatsei zergak igotzea! –Nicetok, ausart.

–Eta txiroei zergak jaistea! –jarraitu zuen Indalecio sozialistak.

–Eta enpresa ttikiei kontribuzioa kentzea! –bota zuen Victoria karlista autogestionarioak.

–Basta! Nahikoa dugu! Populismo merkerik ez, mesede! –moztu zuen alkateak–. Hori guztia oso polita da baina, dirurik bildu ezean, nola kobratuko ditugu gure soldadak?

–Egia... –aho batez.

–Beste gauzatxo bat batzarrarekin hasi aurretik, udalkideok. Hemen, nire eskuinera, Karla dago eserita, nire izurdea, idazle fin buruargia... Kultur lanak eramango ditu, eta alkateordetza ere bai. Laguntza handia eskainiko digulakoan nago, eta bego. Eskatu kontseilu berari, eman ideiak, bota galderak, mahairatu zalantzak... nahi duzuen guztia. Es un hacha!... Bon, eta orain has gaitezen batzarrarekin. Hamazazpi puntu dauzkagu, eta hamazazpi zinegotzi gara. Asko maite ditut nik numeroak,

zenbakien mitologia ezkutua eta hori guztia. Zergatik? Badakizue zer dioen *Denboraren Zenbaketaren Liburua* deritzon liburu txinatarrak? Bada, hauxe: “Numen zeru-tiarra lurreratu eta lurterra zeruratu zen. Hala, Zerua eta Lurra elkartu ziren eta kopulazio hartatik gauza guztiak sortu ziren”. Pollita, ezta?

–Gustatzen zaizu *Cifras y letras*? –galdetu zion Patzi-kok, xalo-xalo.

–Tira, bai, hainbestean, zer esango dizut nik –erantzun zion alkateak.

Idazkari-andereak lan-zerrenda irakurri zuen, eta eguzki errainu bat sartu zen aretora saguxar baten antzera. Kontuhartzaileak betaurrekoak ipini zituen sudur-zubiko leuntasunean, eta arkatz zorrotz bat atera zuen panazko galtzen patrikatik. Idazkari-andereak esan zuen orduan:

–Tira, has gaitezen. Eta zorte on.

Uren bideratzea zen zerrendako lehen gaia. Gai arantzatsua dudarik gabe, ezen urak diru asko mugitzen baitu, enbarazu handiak sortzen. Gainera, sei langile hil ziren itota bideratze-lanetan ari zirela, duela pare bat hilabete, bat-batean hodi erraldoi bat lehertu zelarik. Noren erruz? Eskuak garbi-garbi erakusten zituzten arduradun eta inguruko guztiak. Inork ez zuen ezer ikusi, eta itoen ahoetan tristezia mutu beltz bat baino ez da gelditzen.

Alkateak, zutiturik, esan zuen, hunkiturik:

–Oroimena, duintasuna, justizia. Sei langileen alde. Egin dezagun otoitz.

Otoitz egin genuen, errezatu egin genuen letania xamur bat-bateko bat, hunkigarria eta txiroa, besoak oiloipurditu zizkiguna. Gero, Jon Iñakik, bertsozalea baitzen, bertso bat kantatu zuen sei langile hildakoen arimen alde, kaxkarra eta desafinatua baina era berean hunkigarria eta mamitsua, eta txalo zaparrada bizi batekin bukatu genuen omenaldia.

Orduantxe azaldu zen udaltzaina aretoan. Sarjentua. Tentetu, eta esan zuen:

–Barkatu, alkate jaun: plaza hartu dute.

–Sarjentu, mintza zaitetz argiago, mesedez.

–Langileak dira itxuraz, jauna. Ehun bat. Ez direla bertatik mugituko arazoa...

–Bidal itzazu zakurraren zulora! Segituan!

–Ezin dut, jauna. Hiru bakarrik gaude.

–Hiru? Eta gainerakoak?

–Bajan, nagusi. Estresa, depresioak, bihotzekoak, zaintiratuak, tortikolisak, oporrak...

–Alfer urde kuadrilla! Neu jaitsiko naiz!

–Ni ez nintzateke joango, jauna. Giltza ingelesak dakartzate eskuetan, bihurkin erraldoiak, mailuak...

–Eta zakur-giltzak? –galdetu zuen Sorkunek.

–Baita ere, andereño. Eta koadernotxoak ere bai, eurek egiten dituztelako, beharbada... Ondo-ondo itxi dut atea barrutik, nagusi, atalagaz eta guzti. Zer gerta ere. Inoiz ez da jakiten noiz. Horregatik guztiagatik. Eta



lepoaldeko zainak puztu-puztu dakartzate, eta euforia makur bat, ukabil itxietan azantza bortitz bat, aurpegietan desesperazioaren arrasto ubela, eta hiltzeko prest dirudite, edo hiltzen hiltzeko prest. Ez dakit ulertzen zaidan, jauna.

–Conque morir matando, ¿eh? Me cago en la madre de todos ellos. ¡Rufianes! –esan zuen José Antonio popularrak, bere onetik kanpo.

–Lasai, José Antonio. Ez dezagun burua gal –lasaitu zuen alkateak–. Zuk zer egingo zenuke, Karla?

Galderak ezustean harrapatu ninduen. Ene baitarako pentsatzen ari nintzen egoera hura guztiz nobeleskoa zela, ez zitzaidala komeni gauzak behartzea, itxaron egin behar nuela gertakizunak ezari-ezarian joan zitezen, ibai emaro baten antzera, denboraren bulkada ezinbestekoaz. Jakina, ezin nion hori esan alkateari, eta gainera beldur apur bat ere sentitzen nuen barrabiletan (beti hortxe, zer gauza den giza makineria), eta gogo biziak sentitzen nituen Karmen maiteari deitzeko, zatoz, ikusi non sartu nauzuen, aurrenekoa kopetan, ez dakit horrela esaten den, la primera en la frente alegia, baina aurre egin behar zitzaion egoerari, gizentasunez, argitasunez, horretarako nintzen alkate-bigarrena, eta irmotasuna erakustearren, negoziatzaile gogorra, esan nuen:

–Ertzaintzari deitu. Ostia epel batzuk, tiro batzuk zeruko patxadara, eta akabo komeriak, jaunak.

–Hori basakeria da, Karla. Inhumanoa! –nire alderdi bereko Xabinek.

–Baina mehatxaturik gauzkate! Giltzak dauzkate, burdinak, harri-koskorrak, iskiluak, arma zuri-zuri zorrotz-zorrotzak... –defendatu nintzen.

–Baina baita koaderno zuri-zuriak ere! Zertarako? Bertan bakea sina dezagun, bertan elkarrizketatu gaitzen, bertan idatz dezagun geu guztion etorkizunaren alfabeto berria... –bota zuen goxo-goxo Justina abertzale akonfesimalak.

–Egia, Justina. Arrazoi osoa duzu. Gainera, sarraskia litzateke. Biolentziaren alde zaudeten ikustearren esan dut. Proba moduko bat. Orain badakit non gauden. Hitzean sinesten dugu, eta hori gauza ederra da. Entzun ditzagun langile horien aldarriak eta negarrak, beharrak, txantxarrik gabeko mintzoa –esan nuen nik, duintasunez atzera joz.

–Eta, orduan? –alkatearen galdera pragmatikoa.

–Plaza hartu dute, jauna. Militarki hartu ere. Sarre-irteera guztiak itxi dituzte, zubi zaharra, inguruko etxeetako teilatuetan begiraleak ipini. Bertako gozotegia arpilatu dute. Tartak, teilatxoak, xaxutxoak, pastelak eta ardo goxoak, turroi askotarikoak, urdaiazpiko hankabeltzak, zer gehiago, Dueroko ardo beltzak, txokolateak, en fin, gozokeria guztiak sabeldarraiki. Ilargiratze bat egin dute, baina ez ilargira, gozotegira baino. Mailuekin eta hola. Aitzurren poetikarekin. Eta zer, nik? Gose direla.

Eta ni jango nautela hurrena arazoa konpontzen ez badiezue, badakitela non bizi naizen –bota zuen negar-hipaka sarjentuak.

–Zu lasai horregatik, sarjentu maitea. Inork ez zaitu jango! –kontsolatu zuen alkateak–. Eta, orduan?

Xanti, abertzale ilegal biboteduna, tximista bezala jaiki zen. Leiho handia ireki eta balkoira irten zen. Besoak jaso zituen eta harrikada gogor bat jaso zuen kopetaren erdian. Edo akaso harrikada gogor bat jaso zuen kopetaren erdian eta besoak jaso zituen gero. Ziplo erori zen, zerraldo, lasto-fardo baten antzera. Odolak bidexka gorri bat margotu zuen, abstraktua, bere apaltasunean zoragarria. Sartu genuen balkoitik Xantiren gorputz abatitua eta aretoko zoruaren gainean utzi. Ez zegoen hilda, zorionez, baina kopetan zeukan zuloaren kariatz Tartalo ematen zuen. Konorterik gabe zegoenez, barre ttiki batzuk egin genituen hirugarren begi haren kontura.

–Mediku bat! Mediku bat! –egin zuen oihu norbaitek, bi aldiz.

Han, ordea, ez zegoen medikurik. Ezta erizain, ATS edo antzekorik ere. Zer pentsatua eman zigun hutsune hark, egia esan behar bada. Zergatik ez zegoen osasunarekin zerikusia duen inor zinegotzien artean? Kasualitatea ala kausalitate huts? Horixe planteatzeko gogoia etorri zitzaidan, baina neure kolkorako gorde nuen galdera makiabelikoa. Aurrena Xanti salbatu behar genuen.